

**DONOSTIAN 2018KO APIRILAREN 11n EGINDAKO «HITZORDUAK»  
FORO SOZIALA IRAUNKORRAREN ONDORIOAK  
Véronique Dudouet. Berghof Foundation**

Gatazka baten ondoren talde armatuen armagabetzeari, desmobilizazioari eta gizarteratzeari (DDRari) buruzko argipen ugari ekarri dizkigu topagune honek, Kolonbiako, Ipar Irlandako, Filipinetako eta Kongoko Errepublikako Demokratikoko esperientziak eskuartean.

Esperientzia ugari horiek agerian jartzen dute gatazka bakoitza bakarra dela eta, horrenbestez, gatazka-amaiera bakoitzak bere bidea jorratu behar duela, kontuan hartuta herrialdearen historia berezia, gatazka bakoitzeko aldarrikapen politiko eta sozialak, indarkeriak eragindako sufrimendua eta gatazkan izan diren alderdiek gatazkaren iturburua eraldatu eta bakerantz, justiziarantz, demokraziarantz eta adiskidetzerantz jotzeko duten borondatea.

Dena dela, eta gatazka bakoitzaren berezitasunak onartuta ere, badago aukera armagabetzeari, desmobilizazioari eta gizarteratzeari (DDRari) buruzko nazioarteko arau eta jardunak tokian tokiko DDRako hurbilpena egiteko erabiltzeko. Hala, funtsezko printzipio horiek errespetatuz, tokiko, estatuko eta nazioarteko erakundeen aitortza eta babesa lortzeko aukera irekitzen da.

Gatazka armatuak konpontzeko prozesuaren funtsezko fasea da DDRa, eta, normalean, borrokari amaiera negoziatua emateko prozesuarekin eta gatazkan diren alderdien arteko bake-akordioarekin batera etortzen da. Azken hamarkadan, DDRaren mekanismoak eta prozesuak estandarizatu eta profesionalizatu egin dituzte bake-prozesuetan laguntzeko nazioarteko instantziak (batez ere NBEk), betiere testuinguru bakoitzaren berezitasunak errespetatuta. Izan ere, Nazio Batuen nazioarteko arauak (DDRlek) zuzentarau berriak garatu dituzte, azaleratzen diren erronka berriei —besteak beste, negoziatutako bake-prozesuen esparrutik kanpoko DDRi— aurre egiteko.

---

Hizlari guztiek azpimarratu duten bezala, DDRa prozesu konplexua da, dimentsio politikoak, militarrik, segurtasunekoak, humanitarioak eta sozioekonomikoak biltzen baititu. Hertsiki ulertuta, DDRak gatazkaren berehalako ondorioak konpontzera bideratutako mekanismo jakin batzuk biltzen ditu: gatazkan dauden aldeak armagabetzea, armadetako kideak gutxitzea, egitura militante irregularrak desagitea, eta, azkenik, gatazkan egon diren borrokalariak gizarteratzen laguntzea.

Alabaina, DDRa gatazka konpontzeko prozesu luzeago batean ere txertatzen da. Gatazka armatu baten ondoren bake iraunkorra eraikitzeko funtsezko eta ezinbesteko etapa da, adiskidetzea ahalbidetzen duen heinean. Izan ere, borrokan diren alderdien borondatea irudikatu eta hezurramitzen du DDRak: helburu politikoak lortzeko asmoz indarkeria erabiltzeari betiko uko egiteko eta gatazka eraldatzeko borondatea; eta euren idealak defendatzeko eta sustatzeko bide baketsu eta demokratikoak soilik erabiltzeko borondatea. Horrenbestez, DDRa gatazkak konpontzeko ikuspegi global batean txertatu behar da eta ezin da ulertu neurri isolatu gisa.

Euskal Herrian, zehazki, ETA armagabetzeak eta desagiteak elkarrizketa eraikitzailea eta inklusiboa bultzatu beharko luke, preso eta errefuxiatuei lotutako gai humanitarioei, legezkoiei eta sozialei buruz eta gatazkaren biktimei eta gatazkak kaltetutako maila sozial eta politiko guztiei buruz.

---

laz Euskal Herrian izandako armagabetzeak agerian jarri du beste inon egon gabeko prozesua gauzatzeko aukera dagoela, aldebakartasunean (Estatu espainolarekiko elkarrizketarik gabe) eta inklusibitatean (gizarte zibilak izan duen funtsezko eginkizuna) oinarrituta, eta nazioarteko estandar eta arauetara makurtutako armagabetzearen funtsezko printzipioak eta elementuak errespetatuta. Armagabetze hori era koordinatuan eta gardenean, behin betiko eta osorik burutu da, behatzaile neutralek egiaztatuta, eta aldi berean parte hartu zuten eragileen segurtasuna bermatuta eta euskal gizarteak eta tokiko agintaritza politikoei prozesua bere eginda.

DDRaren lehen fasea behin betiko amaituta, hurrengo bi faseak lortzen hasteko uneak iritsi behar du: alde batetik, desmobilizazioa, hau da, erakunde klandestinoak (kasu honetan, ETA) desagitea; eta beste alde batetik, ETako kideak, "gudariak" esaten zaien horiek (kasu honetan, batez ere espetxeetan diren militanteak, errefuxiatuak eta deportatuak), gizarteratzea, lan-merkatuan txertatzea eta adiskidetzeko lan komunitarioetan eta bizitza politikoan parte hartzea.

Kolonbian agerian gelditu den bezala, Habanako bake-hitzarmenak FARCen armagabetzea eta desmobilizazioa ahalbidetu zuen, eta NBERen misio bat sortu zen gerrillako kideak Kolonbian gizarteratzen eta sozioekonomikoki normalizatzen laguntzeko. Aldi berean, FARC erakundea alderdi politiko bilakatuz, gerrilla zaharraren idealak ekintza politiko instituzionalaren bidez eta estatuko instantzia demokratikoan parte hartuz defendatzen jarraitzeko aukera ireki da.

Euskal Herrian, Estatu Espainolarekin bake-hitzarmenik lotu ez denez, ez dago ETA desmobilizatzen eta militanteak gizarteratzen laguntzeko bide instituzionalik. Halere, armagabetzearen fasean DDRaren printzipio orokorrak errespetatu egin direnez, gainerako bi faseetan antzera jokatu dela aurreikus daiteke.

Desmobilizazio-era edozein izan arren, funtsezkoa izango da egitura irregularrak desagiteko eta kideak desmobilizatzeko nazioarteko estandarretan finkaturiko printzipio orokorrak errespetatzea, testuingurua edozein delarik ere.

DDRari lotutako testu guztiek diote desmobilizazioak **borondatezko** prozesua izan behar duela, ezin dela derrigortutako DDRrik burutu, eta gatazkan diren alderdiek funtsezko eginkizuna dutela zeregin horretan. Beste alde batetik, desmobilizazioak inklusiboa izan behar du, parte hartzen duten eragile guztien igurikimenak, beharrianak eta lehentasunak aintzat hartuta: militanteenak (espetxeratuenak, errefuxiatuenak eta klandestinoenak) ez ezik, beraien senideenak eta hurbilekoenak ere. Gatazkan parte-hartze zuzena edo zeharkakoa izan duten eragile guztiek hartu behar dute parte prozesu horretan. «Borrokalaria» izena zentzurik zabalenean ulertu behar da, eta bereziki azpimarratu gazteek eta emakumeek duten eginkizuna, eskubide osoko protagonistak diren heinean.

Euskal Herriko armagabetzean garrantzi handia duen beste elementu bat, desmobilizazioan funtsezkoa izaten jarraitzen duena: **egiaztapena**. Egitura armatu irregularrak desagiteko erabakia zalantzarik gabea eta itzulerarik gabea delako froga materialak eman behar dira (IRArekin eta beste erakunde paramilitar batzuekin Ipar Irlandako Jarraipenerako Nazioarteko Batzordeak egin duen bezala). Atzerabiderik egongo ez delako egiaztapenaz eta bermeaz gain, prozeduren eta espero diren edo gertatzen diren emaitzen berri eman behar zaio jendarteari, gatazkan diren eragile guztiek prozesuaren legitimotasuna aitortzea oztopa lezakeen gaizki-ulerturik, ezin-ulerturik eta aurkako propagandarik egon ez dadin.

---

Azkenik, funtsezkoa da DDRa ez hartzea prozesu baten helmugatzat, eta are gutxiago alde baten porrotzat; guztiz bestela, eraldaketarako bektoretzat hartu behar da, gatazkan diren alderdi guztiek bake iraunkorra eraikitzen partaidetza proaktiboa izan dezaten, ekintza politikoen bidez, hiritar- eta komunitate-konpromisoaren bidez edo adiskidetzeko eta elkarbizitzako ekimenen bidez. Militante ohiak bakea eraikitzeko bazkidetzat jo behar dira. Gatazkan partaidetza aktiboa izatearen atzean arrazoi politikoak eta sozialak egoten direnez, bakea eraikitzeko prozesuko partaide bihurtuz gero, gatazka benetan eraldatzeko aukera handitu egiten da. Are gehiago, esango nuke beraien indarkeriazko iragana dela eta, preso ohiak eta borrokalari ohiak gatazka amaiarazten eta ondorioak konpontzen laguntzeko ekarpen aktiboa egiteko egoera ezin hobean daudela. Iragana tratatzeko eta gatazkaren biktimekin hitz egiteko ekimenetan parte hartuz gero, iraganean jasandako sufrimendua gainditu duen gizarte baketsu batean gertatuko den bizikidetzarako aurrerapausoak bermatuko dira.

Ondorioz, hauxe da informazio- eta elkarrizketa-jardunaldi honen mezu nagusia: armagabetzea, desmobilizazioa eta gizarteratzea bake-prozesuen funtsezko elementuak direla eta gizarteko eragile guztien babesa (gatazkaren protagonistena barne) jasoko duen bake iraunkorrerantz jotzea ahalbidetzen dutela. Egia da DDRaren modalitate teknikoak, hala nola desmobilizazioa, ez direla kasu guztietan ezinbestez ezartzen eta ez daudela ETA bezalako erakunde klandestinoen ezaugarri berezietara egokituta. Halere, prozesua legitimatzen duten printzipio orokorren ezarpena da garrantzitsuena, eta halaxe jokatu zen iaz Euskal Herrian gertatu zen armagabetzean. ETAREN desagitea alde bakarrez erabaki dezake haren zuzendaritzak, baina betiere kide guztien erabaki inklusiboa aintzat hartuta, eta behin betikoa izango delako berme argiekin, sinesgarriekin eta egiaztagarriekin. Eta halaxe jakinarazi behar zaio euskal gizarteari eta, bereziki, gatazkaren biktimei. Etapa horri esker, indar politiko eta sozial guztiek hartuko dute parte DDRaren azken fasean (gizarteratzean). Zalantzarik gabeko desmobilizazioari esker, gainera, tokiko eta estatuko erakundeek planteamenduaren sinesgarritasuna aitortzeko eta aldebakartasunetik elkarrizketa-bidezko prozesura pasatzeko aukera irekiko da. Euskal instituzioekiko elkarrizketa ez ezik, Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketa ere ireki ahal izango da horrela, euskal gatazkaren konponbide inklusiboa galgatzten duten korapilo guztiak askatzeko.